



1. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA  
**AZTERKETA IDATZIA**

# A eredua

1. ABIZENA _____	2. ABIZENA _____
IZENA _____	NORTASUN-AGIRIA _____
LANTOKIA _____	KATEGORIA _____
AZTERKETA-EGUNA _____	AZTERKETA-TOKIA _____



## ARGIBIDEAK

- Azterketa idatziak bi ariketa ditu: irakurmenekoa eta idazmenekoa. Bi ariketa hauek egiteko **ordubete eta 20 minutu** izango dituzu.
- Irakur itzazu ariketa bakoitzaren hasieran datozen argibideak.
- Ariketak boligrafoz egin behar dira. Saia zaitetz letra txukuna egiten.
- Zirriborro-orrietan idatzitakoa ez da zuzenduko.



## 1. IRAKURMENA

**Ariketa-mota:** EGIA ala GEZURRA

**Nola egin:**

- Behean testu bat daukazu eta jarraian testu horri buruzko ariketa bat.
- Ariketa egiten hasi aurretik, testua arretaz irakurtzea gomendatzen dizugu.
- **Ariketa-orrian** datozen esaldiak egia ala gezurra diren markatu behar duzu **erantzun-orrian**.
- Ariketa hau gainditzeko, gutxienez 9 egin behar dituzu ondo.

## BERTSOLARIOK EZ DUGU BATAK BESTEAREN KONTRA ABESTEN

Unai Iturriagak 33 urte ditu eta durangarra da. Txapelketa nagusietan finalista izan da. Gainera, 1990. urtetik aurrera Bizkaiko txapelketa guztietan iritsi da finalera eta herrialdeko hiru txapel jantzi ditu.

### **Bertsolaria zara. Noiz erabaki zenuen horretan jardutea?**

Gauza bat da bertsotan hastea eta beste bat da erabakitzea bertsolaria izan behar duzula. Ni 13 urterekin hasi nintzen mundu honetan eta 18 urtera arte eskolako txapelketak, saioak eta abar egin nituen. Egia esan, ez duzu erabakitzen bertsolaria izan behar duzula. Baina 22-23 urterekin pentsatu nuen: "Honaino iritsi naiz eta zer egin behar dut aurrerantzean?". Eta horrela izan zen gutxi gorabehera.

### **Abestu zenuen lehenengo aldian nola sentitu zinen?**

Nahiko urduri. Hamahiru urterekin izan zen lehenengo aldia bertsoak txapelketa batetik kanpo abesten nituela. Urduri nengoen lehenagotik bertsoak prestatuta nituelako, baina denbora pasa ahala konturatu nintzen hori askoz okerragoa dela bat-batean egitea baino. Buruan baldin baduzu guztia eta hitzen bat ahazten baldin bazaizu, ez duzu zer eginik. Hasieran lagunartean kantatzen genuen eta



abesteak alaitasuna ematen zigun. Bi sentimendu hauek nahasten ziren: urduritasuna eta alaitasuna.

### **Zein bertsolariren kontra izan duzu zailtasun gehien?**

Bertsolariok ez dugu batak bestearen kontra abesten, ez daukagu areriorik eta. Zailtasun bakarra izan daiteke bidea ez aurkitzea bertso bat egiterako orduan. Batzuekin errazagoa egiten zaizu, hala ere. Niretzat errazena Igor Elortza aldamenean izatea da, nire bertso-kide izateaz gain, nire lagun-taldekoa delako. Oso ongi ezagutzen dugu elkar, eta batak zerbait esaten duenean besteak badaki zertan pentsatzen ari den. Baina denok ditugu harreman onak, horregatik ez dago beldurrik batarekin edo bestearekin abesteko.

### ***“Berandu da gelditzeko”* liburua idatzi duzu. Nola bururatu zitzazun?**

Niri irakurtzea asko gustatzen zait, eta horretatik hasi nintzen; ausardia handiz, egia esan. Irakurtzen hasi nintzenean, pentsatu nuen ea zer irakurtzea gustatuko litzaidakeen niri. Denboraldi horretan nahiko libre nengoen, eta inork ez zekien idazten ari nintzela. Uste dut jendeak ausardia handia duela idazteko garaian, eta oso zaila da zure lehenengo obra maisulana izatea.

### **Bertsoak abesteko garaian, nola kontzentratzen zara?**

Ez dut uste kontzentrazio handirik behar denik. Dena dela, bertso-afari batean zaudenean, esaterako, zaila egiten zaizu batzuetan denekin hitz egin eta afaldu ondoren bat-batean abesten hastea, minutu bateko kontzentrazioa behar da. Txapelketetan zaudenean, bakoitzak bere kontzentrazio-modua dauka, batzuek tentsioa kentzeko salto edo korrika egiten dute, adibidez. Azterketa baten aurrean daukazun tentsioaren antzekoa da. Nik tentsiorik handienak solfeoko azterketetan pasatzen nituen.

### **Liburuaren eguna ospatzen ari garela eta, zein da gehien gustatzen zaizun liburua?**

Liburu bat esatea oso zaila da, asko baitaude. Niri bereziki nobela beltza gustatzen zait. Genero hori oso zabala da. Idazleen artean, Joseba Sarrionandia asko gustatzen zait, bere bertso-bilduma oso zabala eta polita da.



## **1.1. ARIKETA-ORRIA**

EGIA ala GEZURRA?

1. Unai Iturriagarentzat zailagoa da prestatutako bertsoak abestea.
2. Ezagutzen ez dituen bertsolariekin abesteak beldur pixka bat ematen dio Unairi.
3. Unai 18 urterekin erabaki zuen bertsolari izan behar zuela.
4. Unai hiru txapelketa nagusi irabazi ditu.
5. Unai Igor Elortzarekin abestea oso erraza egiten zaio, bertso-kidea eta laguna delako.
6. Unai Durangon jaio zen duela 33 urte.
7. Unai ez zen batere urduri jarri abestu zuen lehenengo aldian.
8. Lagunek animatu zuten Unai bere lehen liburua idaztera.
9. Bertso-afarrietan oso erraza da bat-batean bertsotan hastea.
10. Unai poesia nahiago du nobela beltza baino.
11. Idazten den lehenengo obra bikaina izatea zaila iruditzen zaio Unairi.
12. Azterketetako tentsioa eta txapelketetako konparatzen ditu Unai.



## 2. IDAZMENA

**Egitekoa:** INPRIMAKIA BETETZEA

**Nola egin:**

- Gutxienez 90 hitz idatzi behar dituzu.
- Saiatu letra garbia eta txukuna egiten. Boligrafoz idatzi behar duzu.

**GAIA:** Etxe azpian kafetegi bateko terraza dago, eta ez ditu errespetatzen Udalak baimena emateko jarritako baldintzak: ordutegia, garbitasuna, aulki- eta mahai-kopurua, zarata...

Udaltzaingora joan zarete salaketa jartzera. Azaldu zer gertatzen zaizuen eta nolako arazoak sortzen dizkizuen kafetegiak.

*Oharra: Kontuan izan ez duzula eskutitza idatzi behar; ez idatzi, beraz, gutunetako ohiko agurrik ("eskaera onartuko duzulakoan", "besterik gabe", "honenbestez agur"...)..*



Z  
I  
R  
R  
I  
B  
O  
R  
R  
O  
A





## 1.2. ZUZENKETA-ORRIA — A eredia

**Irakurgaia:** "Bertsolariok ez dugu batak bestearen kontra abesten"

**Ariketa-mota:** EGIA ala GEZURRA

**Baremoa:** ariketa hau gainditzeko, gutxienez, 9 egin behar dira ondo.

### ERANTZUN ZUZENAK

A eredia

1	E	7	G
2	G	8	G
3	G	9	G
4	G	10	G
5	E	11	E
6	E	12	E



1. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA  
AZTERKETA IDATZIA

**B** eredua

1. ABIZENA _____	2. ABIZENA _____
IZENA _____	NORTASUN-AGIRIA _____
LANTOKIA _____	KATEGORIA _____
AZTERKETA-EGUNA _____	AZTERKETA-TOKIA _____



## ARGIBIDEAK

- Azterketa idatziak bi ariketa ditu: irakurmenekoa eta idazmenekoa. Bi ariketa hauek egiteko **ordubete eta 20 minutu** izango dituzu.
- Irakur itzazu ariketa bakoitzaren hasieran datozen argibideak.
- Ariketak boligrafoz egin behar dira. Saia zaitetz letra txukuna egiten.
- Zirriborro-orrietan idatzitakoa ez da zuzenduko.



## 1. IRAKURMENA

**Ariketa-mota:** EGIA ala GEZURRA

**Nola egin:**

- Behean testu bat daukazu eta jarraian testu horri buruzko ariketa bat.
- Ariketa egiten hasi aurretik, testua arretaz irakurtzea gomendatzen dizugu.
- **Ariketa-orrian** datozen esaldiak egia ala gezurra diren markatu behar duzu **erantzun-orrian**.
- Ariketa hau gainditzeko, gutxienez 9 egin behar dituzu ondo.

## BERTSOLARIOK EZ DUGU BATAK BESTEAREN KONTRA ABESTEN

Unai Iturriagak 33 urte ditu eta durangarra da. Txapelketa nagusietan finalista izan da. Gainera, 1990. urtetik aurrera Bizkaiko txapelketa guztietan iritsi da finalera eta herrialdeko hiru txapel jantzi ditu.

### **Bertsolaria zara. Noiz erabaki zenuen horretan jardutea?**

Gauza bat da bertsotan hastea eta beste bat da erabakitzea bertsolaria izan behar duzula. Ni 13 urterekin hasi nintzen mundu honetan eta 18 urtera arte eskolako txapelketak, saioak eta abar egin nituen. Egia esan, ez duzu erabakitzen bertsolaria izan behar duzula. Baina 22-23 urterekin pentsatu nuen: "Honaino iritsi naiz eta zer egin behar dut aurrerantzean?". Eta horrela izan zen gutxi gorabehera.

### **Abestu zenuen lehenengo aldian nola sentitu zinen?**

Nahiko urduri. Hamahiru urterekin izan zen lehenengo aldia bertsoak txapelketa batetik kanpo abesten nituela. Urduri nengoen lehenagotik bertsoak prestatuta nituelako, baina denbora pasa ahala konturatu nintzen hori askoz okerragoa dela bat-batean egitea baino. Buruan baldin baduzu guztia eta hitzen bat ahazten baldin bazaizu, ez duzu zer eginik. Hasieran lagunartean kantatzen genuen eta



abesteak alaitasuna ematen zigun. Bi sentimendu hauek nahasten ziren: urduritasuna eta alaitasuna.

### **Zein bertsolariren kontra izan duzu zailtasun gehien?**

Bertsolariok ez dugu batak bestearen kontra abesten, ez daukagu areriorik eta. Zailtasun bakarra izan daiteke bidea ez aurkitzea bertso bat egiterako orduan. Batzuekin errazagoa egiten zaizu, hala ere. Niretzat errazena Igor Elortza aldamenean izatea da, nire bertso-kide izateaz gain, nire lagun-taldekoa delako. Oso ongi ezagutzen dugu elkar, eta batak zerbait esaten duenean besteak badaki zertan pentsatzen ari den. Baina denok ditugu harreman onak, horregatik ez dago beldurrik batarekin edo bestearekin abesteko.

### ***“Berandu da gelditzeko”* liburua idatzi duzu. Nola bururatu zitzazun?**

Niri irakurtzea asko gustatzen zait, eta horretatik hasi nintzen; ausardia handiz, egia esan. Irakurtzen hasi nintzenean, pentsatu nuen ea zer irakurtzea gustatuko litzaidakeen niri. Denboraldi horretan nahiko libre nengoen, eta inork ez zekien idazten ari nintzela. Uste dut jendeak ausardia handia duela idazteko garaian, eta oso zaila da zure lehenengo obra maisulana izatea.

### **Bertsoak abesteko garaian, nola kontzentratzen zara?**

Ez dut uste kontzentrazio handirik behar denik. Dena dela, bertso-afari batean zaudenean, esaterako, zaila egiten zaizu batzuetan denekin hitz egin eta afaldu ondoren bat-batean abesten hastea, minutu bateko kontzentrazioa behar da. Txapelketetan zaudenean, bakoitzak bere kontzentrazio-modua dauka, batzuek tentsioa kentzeko salto edo korrika egiten dute, adibidez. Azterketa baten aurrean daukazun tentsioaren antzekoa da. Nik tentsiorik handienak solfeoko azterketetan pasatzen nituen.

### **Liburuaren eguna ospatzen ari garela eta, zein da gehien gustatzen zaizun liburua?**

Liburu bat esatea oso zaila da, asko baitaude. Niri bereziki nobela beltza gustatzen zait. Genero hori oso zabala da. Idazleen artean, Joseba Sarrionandia asko gustatzen zait, bere bertso-bilduma oso zabala eta polita da.



## **1.1. ARIKETA-ORRIA**

EGIA ala GEZURRA?

1. Unai Iturriagak hiru txapelketa nagusi irabazi ditu.
2. Ezagutzen ez dituen bertsolariekin abesteak beldur pixka bat ematen dio Unairi.
3. Unai 18 urterekin erabaki zuen bertsolari izan behar zuela.
4. Unaiarentzat zailagoa da prestatutako bertsoak abestea.
5. Unai Igor Elortzarekin abestea oso erraza egiten zaio, bertso-kidea eta laguna delako.
6. Lagunek animatu zuten Unai bere lehen liburua idaztera.
7. Azterketetako tentsioa eta txapelketetako konparatzen ditu Unai.
8. Unai Durangon jaio zen duela 33 urte.
9. Bertso-afarrietan oso erraza da bat-batean bertsotan hastea.
10. Unai poesia nahiago du nobela beltza baino.
11. Idazten den lehenengo obra bikaina izatea zaila iruditzen zaio Unairi.
12. Unai ez zen batere urduri jarri abestu zuen lehenengo aldian.



## 2. IDAZMENA

**Egitekoa:** INPRIMAKIA BETETZEA

**Nola egin:**

- Gutxienez 90 hitz idatzi behar dituzu.
- Saiatu letra garbia eta txukuna egiten. Boligrafoz idatzi behar duzu.

**GAIA:** Etxe azpian kafetegi bateko terraza dago, eta ez ditu errespetatzen Udalak baimena emateko jarritako baldintzak: ordutegia, garbitasuna, aulki- eta mahai-kopurua, zarata...

Udaltzaingora joan zarete salaketa jartzera. Azaldu zer gertatzen zaizuen eta nolako arazoak sortzen dizkizuen kafetegiak.

*Oharra: Kontuan izan ez duzula eskutitza idatzi behar; ez idatzi, beraz, gutunetako ohiko agurrik ("eskaera onartuko duzulakoan", "besterik gabe", "honenbestez agur"...)..*



Z  
I  
R  
R  
I  
B  
O  
R  
R  
O  
A





## 1.2. ZUZENKETA-ORRIA — B eredia

**Irakurgaia:** "Bertsolariok ez dugu batak bestearen kontra abesten"

**Ariketa-mota:** EGIA ala GEZURRA

**Baremoa:** ariketa hau gainditzeko, gutxienez 9 egin behar dira ondo.

### ERANTZUN ZUZENAK

B eredia

1	G	7	E
2	G	8	E
3	G	9	G
4	E	10	G
5	E	11	E
6	G	12	G